DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Lankidetza
Cooperación

2026-ZUIZ-00007

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

ANIZTASUN ETA INKLUSIOKO ZINEGOTZI ORDEZKARIAREN EBAZPENA

Donostiako Udala 1996az geroztik da Euskal Fondoaren bazkide, (Euskal Tokiko Erakunde Lankideen Elkartea), eta parte hartze aktiboa du elkarteko gobernu organoetan.

Gure iritziz, Euskal Fondoa eragile gakoa da Euskal Autonomia Erkidegoko lankidetzan, batetik, lan ibilbide luzea eta eskarmentu handia dituelako, eta ondo ezagutzen dituelako laneko toki dituen herrialdeak; eta, bestetik, hainbat udalerri koordinatzeko egiten duen lanagatik.

Hegoko udalerriekin zuzeneko lankidetzan jarduteko erarik egokiena hori dela jotzen dugu.

Guzti hau dela eta, Aniztasuneko eta Inklusioko zinegotzi ordezkariak hartzen du honako

EBAZPENA

1.- Dirulaguntza ematea, pertsona onuraduna, laguntzaren mota, onartutako zenbatekoa.

EUSKAL FONDOAari (IFK G48772487) **158.738 euro** ematea, **2026ko** ekitaldiko aurrekontutik, Dirulaguntzen Lege Orokorreko 22.2.a artikuluan ezarritako dirulaguntza izenduna.

2- Dirulaguntzaren xedea.

Euskal Fondoari zuzeneko dirulaguntza hau Donostiako Udalaren 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusita dago, eta dirulaguntza honi dagokion Planaren fitxan zehaztutako helburu estrategiko eta espezifikoak lortzen laguntzen du. Hauek dira helburu horiek:

RESOLUCIÓN DE LA CONCEJALA DELEGADA DE DIVERSIDAD E INCLUSION.

Desde 1996 el Ayuntamiento de Donostia es socio de Euskal Fondoa, Asociación de Entidades Locales Vascas Cooperantes, y participa activamente en sus órganos de gobierno.

Consideramos a Euskal Fondoa agente clave de la cooperación vasca, tanto por su larga trayectoria de trabajo y su dilatada experiencia y conocimiento de los países en los que trabaja, como por su labor de coordinación de diferentes municipios.

Consideramos que es ésta la forma más adecuada de colaboración directa con municipalidades del Sur.

Es por ello, que la Concejala delegada de Diversidad e Inclusión adopta la siguiente

RESOLUCIÓN

1.- Concesión de la subvención, persona beneficiaria, modalidad de ayuda, importe concedido.

Conceder a **EUSKAL FONDOA** con CIF G48772487, la cantidad de **158.738€**, del presupuesto del ejercicio 2026, en concepto de subvención nominativa de las previstas en el art. 22.2 a) de la Ley General de Subvenciones.

2.- Objeto de la subvención.

Esta subvención directa a Euskal Fondoa está prevista en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2026 del Ayuntamiento de San Sebastián, contribuyendo al logro de los objetivos estratégicos y específicos definidos en la ficha del Plan correspondiente a esta subvención y que son los siguientes:

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Lankidetza
Cooperación

2026-ZUIZ-00007

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

Helburu estrategikoa: Nazioarteko lankidetza

Helburu espezifikoa: Garatze-bidean dauden herrialdeekiko lankidetzari laguntzea, garapen ekonomiko-soziala bultzatzeko eta/edo sentsibilizazioa areagotzeko proiektuak eta programak sustatu, finantzatu eta kudeatuz, Euskadiko beste toki erakunde batzuekin batera, haien arteko koordinazioa bultzatuta.

Dirulaguntza zuzen honen bitartez proiektu hauek diruz lagundu nahi dira:

Genero-berdintasuna bultzatzea Alta Verapaz departamenduko 7 udalerritan. 2. fasea.(3) Guatemala. **30.000 €**

Berdintasunerako eta emakumeen eskubideetarako lurralde-estrategiak sustatzen dituzten udalerriak. 2. fasea (3). El Salvador. **30.000 €**

Ipar Cuscatlaneko gazteen enplegagarritasunerako eta ekintzailetasunerako prestakuntza. 2. fasea (2) El Salvador **20.000€**

El Salvadorreko suhiltzaileentzako prestakuntza espezializatua eta gerentziazko laguntza El Salvadorren prestakuntza-zentro bat garatzeko. **14.374,61€**

Adineko Helduentzako Arreta Integraleko Programa sendotzea, Habanako Historialariaren Bulegoak garatzen duena, lurraldeko adineko pertsonen zahartze osasungarrirako eta partaidetza sozialerako estrategiak sustatuz.3.fasea(4). **5.082,44 €**

Memoriatik justiziara: sahararren ahotsak zigorgabetasunaren aurrean.**15.000€**

Objetivo estratégico: Cooperación Internacional

Objetivo específico: Contribuir a la cooperación con los países en vías de desarrollo mediante la promoción, financiación y gestión de proyectos y programas de desarrollo económico-social y/o de sensibilización, junto con otras entidades locales vascas potenciando la coordinación entre las mismas

A través de esta subvención directa se van a financiar la realización de los siguientes proyectos:

Impulso de la equidad de género en 7 municipios de Alta Verapaz-Guatemala 2ª fase. (3). **30.000 €**

Municipalidades promotoras de estrategias territoriales para la igualdad y los derechos de las mujeres. 2ª fase. (3). El Salvador. 3**0.000€**

Formación para la empleabilidad y el emprendedurismo de la juventud de Cuscatlán Norte. 2ª fase. (2) El Salvador **20.000€**

Formación especializada a bomberas/os de El Salvador y acompañamiento gerencial al desarrollo de un centro de formación en El Salvador . **14.374,61€**

Consolidación del Programa de Atención Integral a personas adultas mayores que desarrolla la Oficina del Historiador de La Habana, a partir del fomento de estrategias de envejecimiento saludable y participación social de las personas adultas mayores del territorio.3ª fase(4).Cuba. **5.082,44 €**

De la memoria a la justicia: voces saharauis frente a la impunidad.**15.000€**

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

Saharar errefuxiatuen kanpalekuetan informazioa jasotzeko eskubidea: SEADeko Informazio Ministerioaren indartze instituzionala genero-ikuspegiarekin **25.802,69€**

GAZTENPATIA proiektua. UPV/EHUko ikasleen praktikak eta gradu amaierako lanak garapenerako lankidetzaren arloan. 2026-2027 ikasturtea **18.478,26 €**

3.- Zenbatekoa eta aurrekontu kreditua.

Dirulaguntzaren zenbatekoa **158.738€** da, eta 2026ko Garapenerako Lankidetzako Gastuen Aurrekontu Arrunteko 481.04 partidari egotziko zaio.

4.- Aplikatu beharreko araubide juridikoa

Dirulaguntza honi, emakida irizpen hau ez ezik, aplikagarri izango zaizkio Dirulaguntzen Lege Orokorra (azaroaren 17ko 38/2003) eta lege horren araudia onesten duen Errege Dekretua (uztailaren 21eko 887/2006), publizitate eta lehia printzipioei dagokienean izan ezik. Horrez gain, administrazio zuzenbidearen arauetan ezarritakoa bete beharko da, eta, horrelakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauetan ezarritakoa.

5.- Pertsona onuradunak

Euskal Fondoa onuraduntzat hartzen da, dirulaguntza hau ematea eragin duen jarduera egingo baitu.

Lankidetzarako teknikariaren txostenaren bidez egiaztatzen da elkarteak ez duela diru-laguntzaren onuradun izateko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako debekurik.

Derecho a la información en los campamentos de población refugiada saharaui: fortalecimiento institucional del Ministerio de Información de la RASD con enfoque de género **25.802,69€**

Proyecto Gaztenpatia. Prácticas y Trabajos Fin de Grado (TFG) en cooperación al desarrollo de Euskal Herriko Unibertsitatea. Curso 2026-2027.**18.478,26 €**

3.- Cuantía y crédito presupuestario.

La cuantía de la subvención que asciende a **158.738€** se imputará a la partida 481.04 de Cooperación al Desarrollo del presupuesto Ordinario de Gastos de 2026.

4.- Regimen jurídico aplicable

Esta subvención se regirá, además de por lo dispuesto en este dictamen de concesión, por lo previsto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (en adelante LGS) y en el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la citada Ley (en adelante RGS), salvo en lo que afecte a los principios de publicidad y concurrencia, así como por lo establecido en las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, por lo dispuesto en las normas de derecho privado.

5.- Personas beneficiarias

Euskal Fondoa reúne la consideración de persona beneficiaria en tanto que va a realizar la actividad que fundamenta la concesión de la presente subvención, acreditándose mediante informe de la Técnico de cooperación que la asociación no está incursa en ninguna de las prohibiciones contempladas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, para obtener la condición de beneficiaria de la subvención.

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

Zehazki, pertsona onuradunak egiaztatzen du egunean dagoela zerga betebeharrak (Foru Ogasuna eta Udal Bilketa) eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, eta ez duela premiamendu bidean atzera jasotzeko prozedurengatik ordaintzeke dagoen diru kopururik. Era berean, egiaztatzen du ezdagoela sartuta premiamendu bidezko kobrantzako prozeduretan Udalarekin edo haren erakundeekin egindako zorrak direla eta.

La entidad beneficiaria acredita que, se encuentra al corriente en el cumplimiento de obligaciones tributarias (Hacienda Foral y Recaudación Municipal) y con la Seguridad Social y que no tiene en vía de apremio cantidades pendientes por procedimientos de reintegro. Acredita asimismo que no se halla incursa en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento o sus entidades.

Gorabehera horiek egiaztatu beharko dira, berebat, hurrengo ordainketak egiten direnean ere. Horretarako entitate eskatzaileak baimena eman dio espresuki Donostiako Udalari sektore publikoko edozein entitatetatik beharrezkoak diren datuak zuzenean jasotzeko.

Estas circunstancias deberán igualmente acreditarse en el momento de efectuar los pagos sucesivos. Para ello, la entidad beneficiaria ha autorizado expresamente al Ayuntamiento de San Sebastian para recabar directamente de cualquier entidad perteneciente al sector público los datos necesarios.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluaren arabera, erakundeak egiaztatzen du:

En virtud del artículo 23.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, la entidad acredita:

- diruz lagundutako jarduera ez dela sexuagatiko edo 3.1 artikuluan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreengatiko diskriminatzailea.

- que la actividad subvencionada no es discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el artículo 3.1.

- Ez dagoela administrazio-zehapenik edo zehapen penalik sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik.

- que no se encuentra sancionada ni administrativa ni penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres.

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45.5 artikulua aplikatuz, ez dagoela behartuta Berdintasun Plana egitera eta ezartzera.

- que en aplicación del artículo 45.5 de la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad efectiva de mujeres y hombres, no está obligada a la elaboración e implementación del Plan de Igualdad.

Erakunde onuradunak, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean xedatutakoarekin

La entidad beneficiaria, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

bat etorriz, adierazten du EZ dagoela haren mende merkataritza-jarduerarik ez egiteagatik.

6.- Helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da edozein Administraziok edo erakunde publiko nahiz pribatuk (dela Espainiakoa, dela Europar Batasunekoa, dela nazioarteko erakundeetakoa) helburu berarekin emandako dirulaguntzekin, laguntzekin, diru sarrerekin edo baliabideekin. Betiere, aintzat hartu beharko da dirulaguntza edo laguntza horiei dagokien arauetan ezarritakoa. Hala ere, DLLOko 19.3 artikuluari jarraituz, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa (bai bakarrik, bai beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera) ezingo da, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.»

7.- Dirulaguntza ordaintzeko epeak eta moduak. Bermeen araubidea.

Diru-sarrera bakarra egingo da, dirulaguntza ematen den egunean emandako zenbatekoaren % 100ari dagokiona.

Pertsona onuradunari bermea ematea ez zaio galdatuko, erakunde onuradunaren izaerarengatik eta ez delako ebazpen honen bidez hartutako betebeharrak ez betetzeko arriskurik nabari.

8.- Jasotako dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua

Dirulaguntza honen helburu diren jarduerak egin izanaren egiaztagiriak aurkeztu beharko dira proiektuak amaitu

las operaciones comerciales, declara NO estar sujeta a la misma por no realizar actividad comercial.

6.- Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad.

La presente subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas. No obstante, conforme al artículo 19.3 LGS, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada".

7.- Plazos y modos de pago de la subvención. Régimen de garantías.

Se realizará un único ingreso correspondiente al 100% de la cantidad concedida a la fecha de concesión.

No será exigible la prestación de garantía por parte de la persona beneficiaria en atención a la naturaleza de la entidad beneficiaria y por cuanto no se aprecia riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas en virtud de esta Resolución.

8º.- Plazo y forma de justificación de la subvención percibida

Se deberá justificar las actividades objeto de la presente subvención en el plazo de tres meses desde la finalización del

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

eta hiru hilabete barruan.

Justifikaziorako, honako agiri hauek jasoko dira:
1. Diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen jarduera-memoria.Memoriaren gutxieneko edukia hau izango da:

- Programaren edo proiektuaren izena.
- Diru-laguntzaren xedea.
-Egindako jarduerak, proposatutako helburuen eta lortutako emaitzen deskribapena.
-Proiektuaren garapenean egindako aldaketak.
- Ondorioak

2. Egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituena:

A) Sinatutako diru-sarreren eta gastuen balantze laburtua eta hasierako aurrekontuarekiko izandako desbideratzeak.

B) Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data zehaztuta.

C) Merkataritzako trafiko juridikoan pareko froga-balioa duten edo administrazio-eraginkortasuna duten fakturak edo dokumentuak, aurreko lerrokadan aipatutako zerrendan jasoak, eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duten agiriak.

D) Ondasun higiezinak eskuratuz gero, tasatzaile independentearen ziurtagiria, behar bezala egiaztatua eta dagokion erregistro ofizialean inskribatua.

E) Hala badagokio, a) idatz-zatian aipatzen den zerrendan jasotako kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak

proyecto.

La justificación contendrá los siguientes documentos:
1. Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención. El contenido de la Memoria será, al menos, el siguiente:

- Denominación del programa o proyecto.
- Finalidad para la que se otorgó la subvención.
- Actuaciones realizadas, descripción de los objetivos propuestos y de los resultados obtenidos.
- Modificaciones realizadas en el desarrollo del proyecto.
- Conclusiones

2. Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, que contendrá:

a) Balance resumido de ingresos y gastos firmado y desviaciones acaecidas respecto al presupuesto inicial .

b) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.

c) Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior y, en su caso, la documentación acreditativa del pago.

d) Certificado de tasador independiente debidamente acreditado e inscrito en el correspondiente registro oficial, en el caso de adquisición de bienes inmuebles.

e) Indicación, en su caso, de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación a

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

banatzeko irizpideak, salbu eta diru-laguntzaren oinarri arautzaileek oroharreko zenbateko baten bidez konpentsatzea aurreikusi badute, justifikatu beharrik gabe.

F) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

G) Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.3 artikulua aplikatuz onuradunak eskatu behar dituen hiru aurrekontuak.

H) Hala badagokio, aplikatu gabeko erakinen kasuan itzulketaren ordainketa-gutuna, bai eta horien ondoriozko interesena ere.

Beste dirulaguntzarik jasoko balu, 15 eguneko epean jakinarazi beharko luke

9.- Diruz lagun daitezkeen gastuak

Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira ondorengo hauek: indarrean diren arauei jarraituz egoki justifikatu diren, beharrezkoak diren, eta dudarik gabe proiektu edo jardueraren garapen normalari eta izaerari erantzuten dioten gastuak.

Diruz lagun daitezkeen gastuen eroste kostua inoiz ere ezingo da izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat joko da ebazpen honetako 8. idatz zatian aipatutako justifikatzeko epea bukatu baino lehen egiaz ordaindutako gastua

Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen baditu, onuradunak hornitzaile

que se hace referencia en el apartado a), excepto en aquellos casos en que las bases reguladoras de la subvención hayan previsto su compensación mediante un tanto alzado sin necesidad de justificación.

f) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

g) Los tres presupuestos que, en aplicación del artículo 31.3 de la Ley General de Subvenciones, deba de haber solicitado el beneficiario.

h) En su caso, la carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como de los intereses derivados de los mismos.

En caso de recepción de otra subvención tendrán que comunicarlo en un plazo de 15 días

9 - Gastos subvencionables

Se considerarán gastos subvencionables aquellos que siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, son necesarios y responden de manera indubitativa a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

Se considerará gasto realizado el que ha sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del periodo de justificación al que se refiere el apartado 8º de la presente Resolución.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector público para el contrato menor, el beneficiario deberá solicitar como mínimo tres ofertas

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obrarako konpromisoa hartu, zerbitzua eman edo ondasuna entregatu aurretik, salbu eta ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago halakorik egiten, ematen edo hornitzen duen behar adina erakunde, edo gastua aurretik egin ez bada.

Aurkeztutako eskaintzen artean egindako aukeraketa – Justifikazioan edo, hala badagokio, diru-laguntzaren eskabidean aurkeztu beharko dira – Efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da, eta berariaz justifikatu beharko da memoria batean proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratu ez bada.

Diruz lagundu daitezke diruz lagundutako proiektua gauzatzeko finantza-gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioko gastuak, notario- eta erregistro-gastuak eta peritu-gastuak, bai eta berariazko administraziokoak ere, baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta jarduera behar bezala prestatu edo gauzatzeko ezinbestekoak badira, eta oinarri arautzaileetan hala aurreikusten bada. Salbuespen gisa, banku-bermearen gastuak diruz lagundu ahal izango dira diru-laguntza erregulatzen duen araudiak hala aurreikusten duenean.

Inola ere ez dira diruz lagunduko:

A) Banku-kontuen interes zordunak.

B) Interesak, errekarguak eta zehapen administratibo eta penalak.

C) Prozedura judizialen gastuak

10.- Azpikontratatzeko baldintzak

Diruz lagundutako jarduera hirugarrenekin azpikontratatu ahal

de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la obra, la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiere realizado con anterioridad a la subvención.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

Los gastos financieros, los gastos de asesoría jurídica o financiera, los gastos notariales y registrales y los gastos periciales para la realización del proyecto subvencionado y los de administración específicos son subvencionables si están directamente relacionados con la actividad subvencionada y son indispensables para la adecuada preparación o ejecución de la misma, y siempre que así se prevea en las bases reguladoras. Con carácter excepcional, los gastos de garantía bancaria podrán ser subvencionados cuando así lo prevea la normativa reguladora de la subvención.
En ningún caso serán gastos subvencionables:

a) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

b) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

c) Los gastos de procedimientos judiciales.

10.- Condiciones de subcontratación

La actividad subvencionada podrá ser objeto de subcontratación con terceros por

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

izango da, emandako dirulaguntzaren zenbateko osoaren arabera, Lege honetako DLOren 29. artikuluan eta RGSren 68. artikuluan.

11.- Emandako dirulaguntzaren berri zabaltzea

Erakunde onuradunak bere burua behartzen du diruz lagundutako jarduera dela eta erabiltzen dituen karteletan, plaketan, material inprimatuetan, bitarteko elektronikoetan eta ikus-entzunezko bitartekoetan Donostiako Udalaren Lankidetza Ataleko logotipo ofiziala sartzera.
Diruz lagundutako jarduerak sortutako komunikazio guztiak hizkuntza muinbakar edo inklusiboan egitea, eta emakumeen eta gizonezkoen irudiak estereotiporik gabekoak eta kopuruz ere parekoak izatea.

Indarrean dagoen lege araudi guztia bete beharko da, batez ere Emakume eta Gizonezkoen Berdintasunerako 4/2005 legea, lege hori dela bitarte debeku baita, besteak beste, pertsonen sexuaren araberako bazterkeria klase guztia, zuzenekoa nahiz zeharkakoa.
Diruz lagundutako jarduera ezagutarazteko edo osatzeko ahoz edo idatziz erabilitako elementu guztiak idaztea (argitalpenak, iragarkiak, idazkiak, propaganda, megafonia…), euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz. Horietan guztietan, adierazi egingo dute zein hizkuntzatan egingo duten jarduera, izenaren beraren bidez (euskaraz bada, ez da gaztelaniara itzuliko, eta, alderantziz) eta, ezin denean (izenbururik ez duenean), zein hizkuntzatan izango den berariaz zehaztuko dute.

Horrez gain, ekitaldi publikoetan mezuak euskaraz eman beharko dira bozgorailuetatik, edo, lehenik, euskaraz eta, ondoren, gaztelaniaz edo beste hizkuntzetan.

el importe total de la subvención concedida de acuerdo con los requisitos y prohibiciones previstos en el art. 29 de la LGS y en el art.68 del RGS.

11.- Difusión de la subvención concedida

La entidad beneficiaria se obliga a incluir el logotipo oficial del Negociado de Cooperación del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián en carteles, placas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales que utilice con motivo de la actividad objeto de subvención .

Realizar toda la comunicación generada por la actividad subvencionada en un lenguaje inclusivo y garantizar la presencia equilibrada y no estereotipada de mujeres y hombres en las imágenes que se utilicen.

Respetar cuanta normativa vigente le resulte de aplicación y, en especial, la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y de Hombres, por la que, entre otras cuestiones, se prohíbe toda discriminación directa o indirecta basada en el sexo de las personas.
Redactar todos los elementos utilizados, oralmente o por escrito (publicaciones, anuncios, escritos, avisos, propaganda, megafonía…), para dar a conocer la actividad subvencionada o para completar la actividad, en euskera o en euskera y castellano. En los mismos se dará a conocer el idioma en que se desarrollará la actividad, a través del propio título (si es en euskera no se traducirá al castellano y al revés), y si no es el caso (si no aparece el título), especificando el idioma.

Asimismo, los mensajes emitidos en los actos públicos a través de altavoces se expresarán en euskera o primeramente en euskera y luego en castellano o en otros idiomas.

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

Diruz lagundutako jarduera gauzatu duela egiaztatzean, betebehar hau ere egiaztatu beharko da.

El cumplimiento de esta obligación deberá acreditarse al justificar la realización de la actividad subvencionada

12.- Ez betetzeak eta itzulketak. Ezarritako baldintzak ez betetzearen mailak zehazteko irizpideak

Dirulaguntza, laguntza, diru sarrera eta baliabideen baturak diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen badu, edo dirulaguntza ematean erreferentziatzat gastu aurrekontu bat hartzen bada eta egotz daitekeen gastu justifikatua aurrekontukoa baino txikiagoa bada, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainetik dagoen kopurua itzuli beharko da, eta dagokion berandutze interesa galdatuko da.»

12.- Incumplimiento y reintegros. Criterios de graduación de los posibles incumplimientos de las condiciones impuestas

En los supuestos de concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que superen el coste de la actividad subvencionada, así como cuando se concede la subvención tomando como referencia un presupuesto de gasto y el gasto imputable justificado es inferior al presupuestado, procederá el reintegro del exceso sobre el coste de la actividad subvencionada, así como la exigencia del interés de demora correspondiente".

13.- Norberaren ekimenez dirulaguntza itzultzea

Dirulaguntza eman duen organoak dirulaguntza itzultzeko eskaera egin baino lehen, erakunde onuradunak bere borondatez itzuli ahalko du. Behin dirua sartu eta gero, erakunde onuradunak dirulaguntza eman duen organoari bidali beharko dio diru sarreraren egiaztagiriaren kopia bat, idazki batekin batera. Idazki horretan zehaztuko dira zer proiektutarako eman den laguntza, erakunde onuradunaren izena, zenbatekoa, eta diru sarrera zergatik egin den. Dirua norbere borondatez itzultzeak ez du kentzen berandutze interesak kitatu beharra.
Interes horiek dirulaguntza ordaindu zen egunetik erakunde onuradunak egiaz itzuli duen arte kalkulatuko da

13.- Devolución de subvención por propia iniciativa

Antes de que se efectúe la petición de reintegro por parte del órgano concedente se podrá realizar por la entidad beneficiaria el reintegro con carácter voluntario. Una vez realizado el ingreso, la entidad beneficiaria deberá enviar al órgano concedente de la subvención una copia del justificante del ingreso acompañado de un escrito en el que se indique el proyecto para el que se concede la ayuda, el nombre de la entidad beneficiaria, el importe y el motivo por el que se realizó el ingreso. El reintegro voluntario no exime de la liquidación de intereses de demora que se calcularán desde la fecha de pago de la subvención hasta el momento en que se produjo la devolución efectiva por parte de la entidad beneficiaria.

14. Arau-hausteak eta zigorrak

Gai horretan, DLLOko 56. artikuluan eta hurrengoetan eta hura garatzeko xedapenetan ezarritakoari jarraituko zaio.

14.- Infracciones y sanciones

En esta materia se estará a lo dispuesto en los arts. 56 y ss de la LGS y sus disposiciones de desarrollo.

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián

Zehapenak jartzeko erabakiek Administrazio bidea amaituko dute.

15.- Jakinarazpenak

Erabaki hau erakunde onuradunari jakinaraztea.

16.- Eskuordetzea

Aniztasuna eta Inklusioko zinegotzi ordezkariari eskuordetzea dirulaguntza hau kudeatzeko behar diren administrazio jardun guztiak egiteko eskumenak hala egokituz gero, dirua itzultzeko prozedura barne.

17.- Argitara eman

Onuradunak jasotako dirulaguntzen eta laguntzen berri eman beharko du, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutako moduan eta baldintzetan. Lege horren 5.4 artikuluak xedatutakoa baliatuz gero, Dirulaguntzen Datu-base Nazionala publizitate-betebeharrak betetzeko bitarteko elektronikoa izango da.

Los acuerdos de imposición de sanciones pondrán fin a la vía administrativa.

15.- Notificaciones

Notificar el presente resolución a la entidad beneficiaria.

16º.- Delegación

Delegar en el Concejala delegada de Diversidad e Inclusión las facultades para realizar todas aquellas actuaciones administrativas que requiera la gestión de la presente subvención incluido, en su caso, el procedimiento de reintegro.

17.-Publicidad

La entidad beneficiaria deberán dar publicidad de las subvenciones y ayudas percibidas en los términos y condiciones establecidos en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno. En el caso de que se haga uso de la previsión contenida en el artículo 5.4 de la citada Ley, la Base de Datos Nacional de Subvenciones servirá de medio electrónico para el cumplimiento de las obligaciones de publicidad.

Eta hori JAKINARAZTEN DUT, jakinaren gainean egon zaitezen eta ondorioak izan ditzan (39/2015 Legearen 41 artikulua)

Lo que NOTIFICO para su conocimiento y efectos (art. 41 de la Ley 39/2015)

Donostian, sinaduraren egunean

Aniztasuna eta Inklusioko zinegotzi ordezkaria
Concejala delegada de Diversidad e Inclusión

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Arantxa Lopez Simon (16/06/2026 11:54 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : OKPO-4S08-QKWL-67IL